

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Bolo-bolo dabilen eguraldi aldaketa dela-eta aritu ginen aurrekoan lagun batzuk, nekazaritzari begira betiere. Gorrina eta pareko gaixotasunen gainean ibili ginen berbetan, eta patatak azaldu ziren. Behin irratian aipatu zenuen patatak loratu ostean ez direla berez hobetzen, eta aihena kentzeko moduan daudela.

Bizkai inguru honetan behintzat

–eta suposatzen dut ez

daukagula patentea– aihena

landarearen zati berdeari

deitzen diogu; horrek esan

gura du pataten kasuan

lur gaineko guztia dela. Ez

dakit hala den ala ez, ezta

une egokia ere noiz den

mozteko. Gure ohitura izan da

guztiz gorritu arte itxarotea,

baina gorrina gero eta ugariagoa

izanda gure inguruan... Oraindik urrun daukagu uzta,

baina argitzerik bazenu... Mila esker eta ondo izan. Ander

Manterola (Zornotza).



Kaixo Ander eta lagunak. Guretzat patata (*Solanum tuberosum*) urteko landarea da. Urte asko bizitzen direnek ez bezala –sagarrondoa, adibidez–, urteko zikloaren amaieran loratu eta fruituak hazten ditu. Horretarako energia bideratu behar du. Energia horretan dago koxka. Zenbat da? Patatarenean ez asko. Bere ugalkortasuna hazian ez dagoela badaki patatak, eta ez du energia asko alferrik galduko horretan. Energia gehiena lurpeko tuberkuluetara bideratuko du. Beraz, loratutakoan lasai utzi berdea; ihartzean, hostoak jakiz hustu ahala tuberkuluak hazi eta zailduko ditu. Orain artean bezala, berdea ondo gorritu arte ez historik kendu, ezta patatarik atera ere. Zerbaitetan lagundu nahi izanez gero, loreak kendu. Lore-fruitura bideratutako energia apur hori irabaziko du.

Egia da, klima aldaketa dela-eta landare guztien bizimodua aldatzen ari da. Baina haxe da betikoa den gauza bakarra: ez betikorik ez betirakorik ez dela, dena aldatu egiten dela. Eta landareak etengabe egokitzen daude. Patataren kasuan, munduko hirugarren labore edo uzta ugariena, klimaren oraingo gorabehera honen ondorioz %9 eta %18 artean urrituko dela uste da. Bai gorrina gaitza areagotuko delako, baina baita klimari lotutako baldintza ekologikoak aldatuko direlako ere.

On egin!

Perretxikota

PENTZEAN belarra eta bi-belarra bezala, bi udaberri aurten. Hala nioen aurrekoan urriko loraldi xele-break arrazoitu nahian. Eta udaberria sasoi kaxkarra dela jakinagatik, perretxikota jo nuen mendira lehen-go astean. Zuhaitzek udazken-udazkena dela baitio-te. Esnegorri edo niskalo batzuk, hurritz-perretxikotak, ondoko bakanen bat eta urbeltz sorta ederra ekarri nuen. Basotik etxerako tartean, belaze batean galanperna tantai batzuk ere bildu nituen. Udaberriz urardotutako udazkenetako bildualdi polita!

Horretara irteten naizen gehienetan, batere perretxikorik gabe etortzen naiz etxera bueltan, baina paisaia jankada ederrarekin. Baso, txara, garomen, belardi... Perretxiko toki guztiak noiznahi dira gozamen, eta aro honetan zer esanik ez. Flipa egin nuen mendiaren jantziarekin. Goietako ortzadarak, makurtu, poliki-poliki goxo-goxo etzan eta

paisaiako landare guztien geografia jantzia zuen. Garai batean garbitegi aldameneko pentzean gobada zabaltzen zenekoa gogora ekarri dit. Arropak belar gainean zabalduta. Kolore guztiak zuhaixketan eta zuhaitzetan.

Urrutira begiratu eta gozatu ederra hartzeko unean, ezten batek sast! Sastatekoa nire eguneroko mendietako zuhaitz batzuen kolore demasak. Pinu-



Tuliparbola (*Liriodendron tulipifera*).

dien beltzuneak ez ikustera jarriak garenean kanpotik ekarritako beste bi zuhaitzek erretzen dute udazkeneko paisaia: norteko haritza edo haritz amerikanoa (*Quercus rubra*) eta idi-bihotz arbola edo tuliparbola (*Liriodendron tulipifera*). Gorri-gorri, eskarlata, lehena eta hori urrezko bestea. Intsinis pinua (*Pinus radiata*) bezala Ameriketako iparralde-tik ekarriak biak.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.